

4. Diru iturriak

Diru iturriak aipatzerakoan esan beharra dago, ordainketa bakarraren bidezko sarrera hautatuko dugula. Aplikazioa dohainik ipiniko dugu eta hortik aterako ditugun sarrerak guk ipiniko ditugun iragarpenetatik etorriko dira, baita ere , enpresei gure zerbitzuak saltzen etekinak aterako ditugu, beste alde batetik, enpresei emango diegun prezioa zerbitzuagatik dinamikoa izango da.

Gure aplikazioaren deskarga doakoa izango litzateke eta, esan bezala, etekinak guk ipinitako iragarkietatik aterako genituzke, gure zerbitzuak enpresei salduta ere sarrerak lortuko genituzke.

Horrek esan nahi du irabazten duguna babestuko dugun markarekin adostutakoaren araberakoa izango dela.

Gure enpresak ordainketa errepikaria erabiltzen du. Hots, aplikazioa erabiltzen duen pertsona bakoitzeko 25 zentimo kobratuko ditugu. Horrek esan nahi du hilean aplikazioa erabiltzen duen jendearen araberakoa dela kopuru bat edo bestea lortzea.

Prezio dinamikoa enpresak finkatzen dituen erreferentziazko aldagaien denbora-bilakaeraren arabera aldatuz doan prezio bat da. Beraz, guk prezio dinamikoak erabiliko ditugu saltzen dugunaren arabera irabaziko dugu.